

Merkatuko zerbitzuen salmentak % 1 igo dira 2019ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn

Merkatuko zerbitzuek % 0,7ko igoera izan dute salmentetan 2019an


Merkatuko beste zerbitzu batzuk (aurrerantzean, Merkatuko zerbitzuak) epigrafean bildutako sektoreek % 1,0ko gorakada izan dute salmentetan, aurreko urteko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, termino errealetan, Eustaten datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zerbitzu horiek % 0,2 igo dira, prezio konstanteetan eta urtaroen eraginak ezabatu ondoren.

Koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa.

Bestelako merkatu-zerbitzuak. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkatuko zerbitzuen barruan, % 3,5 igo da Ostalaritza-sektoreko salmenta-indizea; % 3,2 igo da Jarduera profesionalen, zientifikoaren eta teknikoaren indizea; % 0,5 igo da Administrazio-jardueren eta zerbitzu lagungarrien indizea, eta % 0,1 egin du gora Informazio- eta komunikazio-indizeak; bestalde, jaitsi egin da Garraio- eta biltegiatze-indizea (-% 1,7).

Lurraldeen arabera, Araban % 5,0 igo da eta Gipuzkoan % 1,8, baina Bizkaian % 0,3 jaitsi da, 2018ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta eta prezioen eragina kenduta.

Euskal AEko langile okupatuen indizeak % 0,6 egin du gora urte arteko aldiaren Merkatuko beste zerbitzuetan.

**Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Bestelako merkatu-zerbitzuak.
Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. IV/2019**

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	1,0	0,2	0,7
Garraioa eta biltegiatzea	-1,7	1,5	1,0
Ostalaritza	3,5	1,2	2,2
Informazioa eta komunikazioak	0,1	-1,3	-1,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	3,2	0,7	2,0
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-0,5	1,7	-3,4
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba	5,0	2,0	1,7
Bizkaia	-0,3	-0,1	-0,4
Gipuzkoa	1,8	-0,1	2,2
ENPLEGUA	0,6	0,2	-0,4

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

2019KO URTEKO BALANTZEA

Urte osoan, Merkatuko zerbitzuen salmentak %0,7 igo dira, termino errealetan. Sektoreka, Ostalaritzako salmentak % 2,2 igo ziren, Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetakoak % 2,0 eta Garraio eta biltegiatzeakoak % 1,0. Aldiz, Administrazio-jardueren eta zerbitzu lagungarrien salmentak % 3,4 jaitsi ziren, eta Informazioko eta komunikazioetakoak % 1,0.

Hiru lurraldeetatik bitan, Merkatuko zerbitzuek bilakaera positiboa izan dute; hala, Araban zerbitzu horien salmentak % 1,7 igo dira, eta Gipuzkoan % 2,2; Bizkaian, berriz, % 0,4ko beherakada izan dute, prezio konstanteetan hori guztia.

Merkatuko zerbitzuetako langile okupatuen kopurua % 0,4 jaitsi zen 2019an.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62